

KONTROL MOZIOA

GAUEKO ATERPEA ABUZTUAN IXTEA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko ekainaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Apirilean komunikabideetan ikusi genuen Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiekin eta udalekin batera, bizitegi-bazterkeria egoerei aurre egiteko Etxegabeentzako Euskal Estrategia aprobatu zuela. Estrategiaren txostenean jasotzen da bi urteko epea izango duela (2021. urtera arte) eta oinarritzko helburua izango dela etxebizitza eskubidea bermatzea hiri handietan, etxebizitza eredu eta sare berri bat abiatuz.

Donostiaren kasuan, 2017ko Gizarte-ekintzaren memoria begiratzen badugu, 3.119 pertsonak lo egin zuten gizarte-baliabideetan etxerik gabe zeudelako. Hirugarren sektorean lan egiten duten eragileek diote jende asko gelditzen dela abegi zerbitzuetatik kanpora. Esate baterako, Caritasen Aterpeko langileek adierazi digute egunero 75 pertsona gelditzen direla kalean leku falta dela eta.

CEAREk ere behin eta berriro errepikatu du bai Bizkaia bai Gipuzkoan zerbitzuak gainezka daudela, eta hemen gelditzea erabakitzen duten pertsona migratzaileak kale egoeran gelditzen direla.

Udalak kale egoeran dauden pertsonentzat bermatu behar dituen zerbitzuak direla-eta, maiatzeko udalbatzarrean honako kontrol mozio hau onartu genuen aho batez:

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udaltzaren Gobernuari Gizarte Zerbitzuen Zorroak bazterkeria eta kale egoeran bizi diren pertsonentzat jasotzen dituen baliabideak martxan jar ditzala lehenbailehen.

2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udaltzaren Gobernuari udal taldeekin eta etxegabeekin lan egiten duten eragileekin lan saio bat egin dezala Etxegabeentzako Euskal Estrategiak Donostian izango duen eragina azaltzeko.

3.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udaltzaren Gobernuari urtarrileko udalbatzarrean aho batez onartutako mozioak jasotakoa bete dezala.

Pauso hau positiboa iruditzen zaigun arren, gauza gehiago egin daitezkeela uste dugu. Esate baterako, urtero, abuztuaren, kale egoeran dauden zerbitzuetako bat, Gauekoa, itxi egiten da hilabete horretan gauero 29 plaza gutxiago edukiz. Askotan aipatu izan dugu abuztuko itxieraren arrazoia tekniko dela (garbiketa gestioengatik...), baina egungo egoera kontuan izanda, hau da, gure hirian kale egoeran dauden pertsonak plaza baten zain daudela, Udalak bigarren eskaintza bat egin behar duela uste dugu, Gauekoa itxita dagoen bitartean. Hau da,

lokala garbitzeko gestioak egiten diren bitartean, behin-behineko gune bat prestatu abuztuan zerbitzu bera eman ahal izateko.

Honen harira, 2017ko uztailean herritar batek postontziaren bidez iradokizun bat egin zuen zerbitzua ez ixteko eskatuz eta Udalaren erantzuna honako hau izan zen: *Gaueko Aterpean egonaldiak astebeterako dira eta astez aste berritzen da bertaratzeko aukera; abuztuan ez da lotarako tiketik banatzen. Pertsona horietako batzuk Abegi Etxean daude, beste batzuk Donostiako Udalaren ardurapekoak ez diren beste zerbitzu batzuetan, besteren bat lagunen baten etxean, etab.*

Gure ustez, Udalak ezin du erantzun hori eman beste aukerarik eskaini gabe eta irtenbide alternatiboak proposatzea borondate kontua da.

Ekaineko batzordean delegatuak adierazi zuen Gaueko Aterpearen hainbat zerbitzu hobetu direla legegintzaldi honetan, baina ezinezkoa dela zerbitzua abuztuan irekitzea barne-gestioarengatik (mantenu lanak, garbiketa...).

Delegatuak azpimarratu zuen erabiltzaile guztiei irtenbidea ematen zaiela beste zerbitzu batzuetara bideratuz, baina zaila iruditzen zaigu pertsona batzuk kale egoeran gelditzen ez direla sinistea, hiriko abegi eta harrera zerbitzu guztiak beteta daudelako.

Hilabete honetan bertan jakin dugu Gaueko Aterpearen plazak handitu behar izan direla hirira etorri diren pertsona migranteak jasotzeko. Delegatuak, komunikabideetan egindako adierazpenetan aitortu duenez, “Donostiako Udalak bazterketa egoera larrian dauden pertsonentzat daukan zerbitzu garrantzitsuenetako bat da Gaueko Aterpea”.

Gauzak horrela, ezin da ulertu zer dela eta ez den esfortzurik egiten garbiketa gestioak egiten diren bitartean behin-behineko espazioa bat egokitzeko, abuztuan Gauekoak eskaintzen dituen 29 plazak mantentzeko.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gaueko Aterpean abuztuan mantenimendu eta garbiketa lanak egiten diren bitartean, behin-behinko espazio bat egokitu dezala, 29 harrera plaza horiek urte osoan zehar mantentzeko.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari txosten tekniko bat eska dezala Gaueko Aterpea ixteak hiriko beste harrera zerbitzuetan duen eragina aztertzeko eta mantenimendu zein garbiketa lanak ahalik eta eperik laburrenean egiteko proposamen bat egin dezala.

Donostian, 2018ko uztailaren 13an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia